BIZITEGI ERAIKINA — ZUBIETA 34

C MAILA





Egilea eta data: Pedro Muguruza, 1935

Deskribapena

Izkina bikoitzeko eraikina. Bastardea eta bost goi oin ditu, oin bakoitzeko etxebizitza batez. Hormigoizko egitura, kareharrizko xafletako fatxada eta metalezko barne arotzeria ditu. Konposizio kalitateagatik nabarmentzen da; erro klasikoen eta hogeiko hamarkadaren amaiera aldeko arkitektura berriaren arteko topagunearen emaitza gisa. Forma tradizionalak sinplifikatuta agertzen dira, fatxada lauagoa erabiltzearen ondorioz; eta apaindurek erliebe txikiagoa dute, Kontxa pasealekuaren atari gisa gauzatuta. Arkuak arinki sartuta daude, eta, gune jakin batzuetan, golen eta erlaitzen profilak erabiltzen dira. Begiratokiak jarraitutasunean edo fatxadaren beraren hedapen gisa agertzeko soluzioa (eraikinaren izkinetan gaia errepikatuta), era berean, arkitektura arrazionalistari dagokio. Eraikinak angeluranzko orientazioa du, alakatutako leihateen eta azken oineko terrazan duen bolumen hausturaren ondorioz.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

2.- Berariazko babes erregimena:
- A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
- B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: fatxada osoa, arotzeriaren formatua barne dela.
- C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.